

FUNTSEZKO SOZIETATEAK



Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea bermatzeko behar diren baliabideak, esperientzia eta laguntza emango dituzten hainbat bazkide eta hornitzaile izatea. Lehenik eta behin, jardueretarako materialen eta baliabideen hornitzaileak behar ditugu, hala nola tailer sortzaileetarako materiala, joko kognitiboak, ariketa egokituak, estimulazio sentsorialeko materialak, besteak beste. Baliabide horiek funtsezkoak dira, aiton-amonak ongizatean laguntzen duten jarduerak diseinatzeko eta eskaintzeko aukera ematen digutelako, bai garapen fisikoan, bai emozionalean.

Beste funtsezko faktore bat profesional kualifikatuak emango dizkiguten bazkideak izatea da, hala nola terapeutak edota psikologoak. Profesional horiek jarduerak modu egokian egiteko beharrezkoak izateaz gain, ezagutza espezializatuak ematen dituzte jarduerak aiton-amonak bakoitzaren beharretara eta gaitasunetara egokitzeko. Gure proiektuaren garapenaren lehen etapetan, EHUrekin elkarlanean arituko gara, eta bertako informatika graduak ikasleek lagunduko digute plataformaren diseinuan. Horrela, ikasleek ezagutza praktikoaren bidez tresna teknologikoak garatzen lagunduko digute, eta guk proiektuan erabiliko ditugun plataforma eta aplikazioak sortu edo egokitu ahal izango dira.



Era berean, Psikologia graduak azken urteko ikasleak ere gure proiektuan inplikatuak dira, eta haien jakintza erabiliko dugu gure zerbitzuak hobetzeko eta pertsona bakoitzaren behar emozionalak eta kognitiboak egokitzen laguntzeko. Ikasle hauek praktikak egingo dituzte gure enpresan, eta bereziki garrantzitsua izango da aiton-amonen emozioak eta jarrerak kontrolatzea eta dementzia prebenitzeko metodologiak aplikatzea.

Urteko garai batzuetan, hala nola oporretan edo eskari handieneko aldietan, langile kualifikatuak azpikontratatu beharko lirateke, modu horretan zerbitzuaren kalitateari eta jarraitutasunari eutsiz.

Jardueren kudeaketa eraginkorrari eta aiton-amonen informazioari dagokienez, plataforma bat beharko dugu. Bazkide teknologikoek tresna horiek eskainiko dizkigute jarduerak antolatzeko eta koordinatzeko, eta horren bidez, gure sistemaren efizientzia eta segurtasuna areagotuko dugu.



Gainera, gure proiektuaren lehen etapetan, inbertitzaileen laguntza beharko dugu, hasierako gastuak estaltzen laguntzeko. Laguntza hori funtsezkoa izan daiteke materialen erosketan edo langile espezializatuen kontratazioa finantzatzeko. Horiek gabe, zailtasunak izan genezake proiektuan lehen hilabeteetan.

Azkenik, marketina eta komunikazioa funtsezkoak dira proiektuak arrakasta izan dezan. Komunikazioko eta marketin-lanak egiteko kanpoko profesional edo agentzien laguntza beharko dugu gure zerbitzuak merkatuan kokatzen laguntzeko, erakusten nolakoa den daukagun aiton-amonen harreman kalitatea.

